Se pretende desarrollar reglamentariamente normas, procedimientos de diligencia debida y nuevas obligaciones de registro e información, respecto a los operadores de las plataformas digitales. Se quiere regular el intercambio de dicha información entre las administraciones tributarias de la UE.

FAEB31426dac-5da2-4812-99bd-f3da467cce7c

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Horrek balioko du iruzur fiskala, zerga ihesa eta zerga saihestea detektatzeko eta horiei aurre egiteko. Horrela, EBko eremuan informazioaren trukerako eta administrazio lankidetzarako dagoen esparrua optimizatuko da, ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei helduko zaio eta zerga administrazioei zergak hobeto eta eraginkortasun handiagoz biltzen lagunduko dio.

Ello servirá para detectar y combatir el fraude fiscal, la evasión fiscal y la elusión fiscal. De esta manera, se optimizará el marco existente en el ámbito de la UE para el intercambio de información y la cooperación administrativa, se abordarán los retos que plantea la digitalización de la economía y contribuirá a una mejor y más eficaz recaudación de los impuestos a las administraciones tributarias.

Beraz, proiektu honetan jasotako neurriak bideragarriak dira ekonomikoki, eta beraien eragina Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuetan jasangarria izango da. Prestaketa prozesuan zehar beste neurri batzuk sartzen badira, aipatutako memoria ekonomikoan aztertuko dira.

Por tanto, las medidas contempladas en este proyecto resultan viables económicamente y su incidencia en términos cuantitativos dentro de los Presupuestos del Territorio Histórico de Gipuzkoa es asumible. En el caso de que durante el proceso de elaboración se incluyan otras medidas, se analizarán en la citada memoria económica.

Donostia, 2023ko urriaren 9a

San Sebastián, a 9 de octubre de 2023

Sin./Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA/ JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS

FAEB31426dac-5da2-4812-99bd-f3da467cce7c

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Sinadura laburpena

Resumen de firmas

FA-OG-2023-0420

Izenburua | Título:

Zerga araua egiteko espedientearen hasiera DAC7 erregelamendua garatzeko FD.
Disposición general tributaria. Inicio de expediente DF desarrollo reglamentario DAC7

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den foru agindu originalaren sinadura datuak erakusten dira.
A continuación se muestran los datos de la firma de la orden foral original a la que hace referencia este documento.

Sinatzailea | Firmante:PERONA LERCHUNDI, Jokin

Data | Fecha:2023ko urriaren 10ean

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **FAEB31426dac-5da2-4812-99bd-f3da467cce7c**
Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks
Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://egoitza.gipuzkoa.eus/csv

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluaren 1. apartatuko d) letran jasotakoaren ondorioetarako, eta espedientean horrela jasota gera dadin, adostasuna ematen diot arau proposamen honi.

A efectos de lo dispuesto en la letra d) del apartado 1 del artículo 70 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y para que así conste en el expediente, doy mi conformidad a la presente propuesta normativa.

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA /

EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Foru Dekretua, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek eman behar duten informazioaren nahitaezko truke automatikoaren esparruan bete beharreko arauak eta prozedurak, eta Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen baita. Horrekin gure ordenamendura ekartzen da Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

Decreto Foral por el que se desarrollan las normas y los procedimientos de diligencia debida en el ámbito del intercambio automático obligatorio de información comunicada por los operadores de plataforma y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad.

I

Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauak, zeinaren bidez aldatzen baita fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua (aurrerantzean, DAC 7), helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunean informazioa trukatzeko eta administrazio lankidetzarako dagoen esparrua hobetzea eta administrazio lankidetza hori eremu berrietara zabaltzea, ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko eta zerga administrazioei zergak hobeto eta modu eraginkorragoan biltzen laguntzeko. Alde horretatik, bertan informazio obligazio berri bat ezartzen da plataforma digitaletako operadoreei dagokienez.

Era berean, informazioa trukatzeko mekanismoak indartzen ari diren nazioarteko testuinguru horretan, kontuan izan behar da Espainiak izenpetuta daukala Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen esparruan (ELGA, aurrerantzean) plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko Agintari Eskudunen artean egin den Akordio Aldeaniztuna. Orobat, helburu bera duten nazioarteko beste akordio batzuk ere izenpetu ditu estatuak. Alde horretatik, Akordio Aldeaniztun horren babespean jurisdikzio sinatzaileei informazio trukea errazte aldera, onespena eman zaio ELGAren baitan «Ekonomia kolaboratiboaren eta noizbehinkako lan ekonomiaren esparruan saltzaile direnei buruz plataformetako operadoreek informazioa emateko arauen ereduari» (Arauen eredua, aurrerantzean), zeinak antza handia baitu DAC 7 zuzentarauaren edukiarekin, eta bereziki, haren eranskinean jasotzen diren bete beharreko arau eta prozedurekin.

I

La Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad, en adelante DAC 7, tiene como principales objetivos mejorar el marco existente para el intercambio de información y la cooperación administrativa en la Unión Europea, así como ampliar la cooperación administrativa a ámbitos nuevos, con el fin de abordar los desafíos que plantea la digitalización de la economía y ayudar a las administraciones tributarias a recaudar los impuestos de una forma mejor y más eficiente. En este sentido, se establece una nueva obligación de información respecto de los operadores de las plataformas digitales.

Asimismo, en un contexto internacional de fortalecimiento de los mecanismos de intercambio de información, hay que tener en cuenta la suscripción por parte de España del Acuerdo Multilateral entre Autoridades Competentes para el intercambio automático de información sobre la renta obtenida a través de plataformas digitales en el ámbito de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico, en adelante OCDE, así como otros acuerdos internacionales suscritos con el mismo objetivo. En este sentido, a efectos de facilitar a las jurisdicciones firmantes el intercambio de información al socaire del citado Acuerdo multilateral, se ha aprobado en el seno de la OCDE un Modelo de Reglas de comunicación de información por parte de operadores de plataformas respecto de los vendedores en el ámbito de la economía colaborativa y la economía de trabajo esporádico, en adelante Modelo de Reglas, sustancialmente similar al contenido de la DAC 7, en particular, a las normas y

procedimientos de diligencia debida de su anexo.

Aipatutako operadoreek beharkizun hori bete ahal izan dezaten, bertan nahitaez aplikatu beharreko zenbait arau eta prozedura ezartzen dira plataforma digitaletako operadoreek «saltzaileei» dagokienez aplika ditzaten, eta, horren helburua da saltzaileek datu jakin batzuk ematea operadoreei, azken horiek, beren aldetik, Zerga Administrazioarekiko duten informazio betebeharra bete dezaten.

A efectos de que los citados operadores puedan cumplir con la mencionada obligación se establecen ciertas normas y procedimientos de diligencia debida que los operadores de plataformas digitales deberán aplicar respecto de los considerados “vendedores”, a fin de que estos últimos faciliten determinados datos a los operadores para que estos, a su vez, puedan cumplir con la obligación de información respecto de la Administración tributaria.

Foru dekretu honek helburu bikoitza du: batetik, gorago adierazi diren bete beharreko arau eta prozedurak ezartzea, eta, bestetik, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan sartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean gai horien inguruan jasotzen den araudiarekin batera aplikatzekoak diren erregistro eta informazio betebehar berriak. Horrekin osatuta geratzen dira bai 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa eta bai Akordio aldeaniztunaren edo nazioarteko beste akordio batzuen ezarpena.

Este decreto foral tiene por objeto establecer las normas y procedimientos de diligencia debida referenciados, así como regular las nuevas obligaciones de registro e información que se incluyen en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, que, junto a la normativa legal sobre dichas materias contenida en la Norma Foral 2/2005, 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, completan la transposición de la citada Directiva (UE) 2021/514, así como la implantación del Acuerdo multilateral u otros acuerdos internacionales citados.

Alde horretatik, aipatutako 2/2005 Foru Arauaren hogeigarren xedapen gehigarriak, ……aren (e)ko.../2023 Foru Arauak erantsi zuenak –haren bidez martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aldatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko (zuzentarau horrek 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen du, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzkoa), bai eta beste zerga arau batzuk ere–, arautzen ditu elkarren laguntzaren eremuan informazioa emateko betebeharra duten plataforma operadoreen informazio

En este sentido, la disposición adicional vigésima de la mencionada Norma Foral 2/2005, adicionada por la Norma Foral ../2023, de .. de ……. (por la que se modifica la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo, de 22 de marzo de 2021, por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad, y otras normas tributarias), regula las obligaciones de información y de diligencia debida relativas a la declaración informativa de los operadores de plataforma obligados en el ámbito de

aitorpenari dagokionez informazioa emateko nahitaez bete beharrekoak diren beharkizunak, eta ezartzen du ezen xedapen gehigarri horren arabera betetzekoak diren arau eta prozedurak, erregistro betebeharrak eta informazioa ematekoak erregelamenduz garatuko direla. Halaber, ezartzen du erregelamendu bidez zehaztuko dela xedapen gehigarri horretan eta erregelamenduzko garapenean erabilitako terminoen esanahia

la asistencia mutua, y estable que reglamentariamente se desarrollarán las normas y procedimientos de diligencia debida, así como las obligaciones de registro y suministro de información de dicha disposición adicional. Así mismo, establece que reglamentariamente se determinará el significado de los términos utilizados en la citada disposición adicional y en el desarrollo reglamentario.

II

Nahitaez bete beharreko arau eta prozedurei dagokienez, eremu subjektiboaren aldetik, horrelako prozedurak aplikatu beharko dituzte “saltzaileen” informazio jakin batzuei buruz “informatzera behartuta dauden plataforma operadoreek”; gainera, aplikatu beharreko arau horien indarrez, «saltzaileek» datu horien berri eman beharko diete esandako operadoreei.

Eremu objektiboari dagokionez, bete beharreko arauak eta prozedurak zertan dautzan definitzen da.

Ildo horretan, aipatutako operadoreek eman behar dituzten datuak lortzeari begira, operadore horiek ikuspegi bikoitzetik ezarri beharko dituzte aplikatu beharreko prozedurak. Alde batetik, beren plataformak erabiltzen dituzten saltzaileen identifikazio datuak bildu beharko dituzte. Bestetik, datu horiek egiaztatu beharko dira, eta garrantzi berezia izango du argi uzteak non duen saltzaileak bere egoitza; izan ere, identifikazio horrek esango digu Europar Batasuneko zein estatu kide edo zein jurisdikziotara bidaliko den informazioa.

II

Respecto a las normas y procedimientos de diligencia debida, en cuanto al ámbito subjetivo, deberán aplicar tales procedimientos los “operadores de plataforma obligados a comunicar información” en relación a determinadas informaciones de los “vendedores” que, por su parte, estarán sujetos a la comunicación de dichos datos a los citados operadores en virtud de estas normas de diligencia debida.

Respecto del ámbito objetivo, se define en qué van a consistir las normas y procedimientos de diligencia debida.

En este sentido, a efectos de la obtención de los datos que es necesario comunicar por parte de los citados operadores, estos deberán implantar los correspondientes procedimientos de diligencia debida desde una doble perspectiva. Por un lado, deberán desplegar una actividad de recopilación de datos identificativos de los vendedores que utilicen las plataformas que ellos operan. En segundo lugar, se deberán verificar los citados datos, alcanzando especial importancia el esclarecimiento de la residencia del vendedor, por cuanto dicha identificación determina los Estados miembros de la Unión Europea u otras jurisdicciones a los cuales se les transmitirá la información.

Aurrez begiratu beharreko elementu bat da zehaztea saltzaileak «egiaztapenari lotu gabeko saltzaileak» diren edo ez, eta horretarako bi tresna baliatzen dira: ez egiaztatzeko arrazoia salbuesten den entitate publiko edo kotizatuaren konfigurazioa bera bada, egiaztapena egin daiteke eskuragarri dagoen informazio publikoa erabilita edo "entitateak" berak berretsitakoaz baliatuta. Ez egiaztatzeko arrazoia saltzaileak garatutako jardueraren konfigurazioa bada, operadoreak eskura dituen erregistroetan oinarrituta egin daiteke azterketa.

Un elemento previo a comprobar es la consideración de los vendedores como "vendedores no sujetos a verificación", utilizándose dos instrumentos a estos efectos: si la exclusión se fundamenta en la propia configuración de la entidad excluida, pública o cotizada, la verificación se puede efectuar a través de la información públicamente disponible o confirmada por la propia "entidad". Si la exclusión se fundamenta en la configuración de la actividad desarrollada por el vendedor el análisis puede basarse en los registros disponibles por el operador.

Informazioa zuzena dela egiaztatzeko, operadorearen fitxategietan jasota dagoena erabiliko da oro har. Nolanahi ere, identifikazio fiskaleko zenbakien kasuan, egiaztapena doako edozein interfaze elektroniko erabiliz egin ahal izango da, izan estatu kide batek edo Europar Batasunak berak eskura jarritakoa, izan "jurisdikzio elkartu" batek edo ELGAk prestatua. Halaber, kasu jakin batzuetan, zilegi izango da erabiltzea operadoreak bere bilaketa erregistroetan dituen informazioa eta dokumentuak.

La verificación de la corrección de la información se efectuará, con carácter general, utilizando aquella que estuviera en los propios archivos del operador. No obstante, la comprobación de los números de identificación fiscal se podrá realizar a través de cualquier interfaz electrónica gratuita puesta a disposición por un Estado miembro o por la propia Unión Europea, así como por una "Jurisdicción socia" o la OCDE. Asimismo, en determinados supuestos se podrán utilizar la información y documentos de que disponga el operador en sus registros de búsqueda.

Gainera, saltzaileak egiten duen jarduera ondasun higiezinen errentamendua edo erabileraren aldi baterako lagapena den kasuetarako, berezitasunak ezartzen dira garatutako jardueraren izaeratik eratortzen diren informazio eta beharrezko eginbide obligazioei dagokienez. Alde horretatik, beharrezkoa izango da ondasun higiezinaren kokapen zehatza identifikatzea; izan ere, plataformaren operadoreak saltzailearen egoitza dagoen estatu kideari edo "jurisdikzio elkartuari" ez ezik, ondasun higiezina kokatuta dagoen estatu kideari edo "jurisdikzio elkartuari" ere komunikatuko dio kasu horietan lortzen duen informazioa.

Además, en el caso de que la actividad desplegada por el vendedor sea el arrendamiento o cesión temporal de uso de bienes inmuebles, se establecen particularidades respecto de las obligaciones de información y de diligencia debida derivadas de la propia naturaleza de la actividad desarrollada. En este sentido, será necesario identificar la localización concreta del bien inmueble, por cuanto el operador de la plataforma comunicará la información obtenida en estos casos no solo al Estado miembro o "Jurisdicción socia" de residencia del "vendedor", sino también al Estado miembro o "Jurisdicción socia" donde estuviera localizado dicho bien inmueble.

Aplikatu beharrekoak diren prozeduren uneari eta baliozkotasunari dagokienez, beharrezkoa da horiek gauzatzea informazioa komunikatzen den urte naturaleko abenduaren 31 baino lehen. Badira, hala ere, salbuespenak, esate baterako, informazioa 2023ko urtarrilaren 1ean plataforman erregistratuta ageri diren saltzaileei dagokienean edo entitate bat «informatzera behartuta dagoen plataforma operadore" bihurtzen den egunean erregistratutako saltzaileena denean, edo saltzaileen informazioa aurreko 36 hilabeteetan lortu eta egiaztatu denean aplikatu beharreko arauekin bat eta haren zuzentasuna zalantzan jartzeko arrazoirik ez dagoenean.

En cuanto al momento y validez de los procedimientos de diligencia debida aplicados, estos deben realizarse antes del 31 de diciembre del año natural respecto del cual se lleva a cabo la comunicación. Si bien se establecen excepciones respecto de la información relativa a vendedores que ya estuvieran registrados en la plataforma el 1 de enero de 2023 o en la fecha en que una entidad se convierte en un "operador de plataforma obligado a comunicar información", así como a vendedores cuya información hubiera sido obtenida y verificada conforme a las normas de diligencia debida en los 36 meses anteriores sin que hubiera motivos para dudar de su incorrección.

III

Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan informazio betebehar berri bat ezartzen da, zeinaren arabera "informatzera behartuta dauden plataforma operadoreek" beren plataformaren bidez garatutako jarduerari buruzko informazio jakin bat eman behar baitiote Zerga Administrazioari. Plataforma horren bitartez, «saltzaileak» beste erabiltzaile batzuekin jar daitezke harremanetan, erabiltzaile horientzat «bidezko jarduera» bat garatze aldera, dela zuzenen dela zeharka. Orobat, "bidezko jarduera" horrekiko "kontraprestazioa" bildu eta ordaintzeko modalitate guztiak ere hartzen ditu barne plataformak.

III

Se establece una nueva obligación de información en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, en virtud de la cual los "operadores de plataforma obligados a comunicar información" deberán declarar a la Administración tributaria determinada información relativa a la actividad desarrollada a través de la plataforma que operan. Dicha plataforma permite a los "vendedores" ponerse en contacto con otros usuarios para llevar a cabo una "actividad pertinente", de forma directa o indirecta, para esos usuarios. También incluye cualquier modalidad de recaudación y pago de una "contraprestación" con respecto a la "actividad pertinente".

Lortutako datuak Europar Batasuneko gainerako estatu kideekin edo "Jurisdikzio elkartuarekin» trukatuko dira, eta "informatu beharreko saltzaileak" egoitza duen estatu kideari edo jurisdikzioari bidaliko zaizkio. Ondasun higiezinak errentan eman edo haien erabilera aldi baterako lagatzen den kasuetan, gainera,

Los datos obtenidos serán objeto de intercambio de información con el resto de los Estados miembros de la Unión Europea o "Jurisdicción socia", remitiéndose al Estado miembro o jurisdicción en que el "vendedor sujeto a comunicación de información" sea residente. En el caso de arrendamiento o

ondasun higiezinak kokatuta dauden estatu kideari edo jurisdikzioari bidaliko zaio informazioa.

cesión temporal de uso de bienes inmuebles, además, se enviará la información al Estado miembro o jurisdicción en que se ubican los bienes inmuebles.

Eremu subjektiboari dagokionez, "informazioa ematera behartuta dauden plataforma operadoreek" Gipuzkoako Foru Aldundian aurkeztu beharko dute aitorpena baldin eta Espainiako lurraldearekin DAC 7an aurreikusten diren konexio irizpideetako bat bete eta, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 46.Bi artikuluan ezarritakoaren arabera, eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiari badagokio lurraldea dela eta.

En relación con el ámbito subjetivo, deberán presentar la declaración ante la Diputación Foral de Gipuzkoa aquellos “operadores de plataforma obligados a comunicar información” en los que concurra algún criterio de conexión con el territorio español de entre aquellos contemplados en la DAC 7, cuando, según lo establecido en el artículo 46.Dos del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, la Diputación Foral de Gipuzkoa sea competente por razón del territorio.

Ez dira egongo informazioa ematera behartuta honako hauek: «plataforma operadore salbuetsiak», hau da, beren enpresa ereduan «informatu beharreko saltzailerik» ez dutenak, eta, DAC 7aren esparruan, egoitza «Batasunetik kanpoko lurralde kualifikatu» batean duten operadoreak, azken kasu horretan, baldin eta, «agintari eskudunen arteko kualifikazio akordio indardun» bati jarraituta, zuzentarauan aurreikusitako informazio bera ematen badute.

No estarán obligados a informar los “operadores de plataforma excluidos”, que son aquellos que no tienen en su modelo empresarial “vendedores sujetos a comunicación de información”, ni tampoco, en el ámbito de la DAC 7, los operadores residentes en un “territorio cualificado no perteneciente a la Unión” que suministren la misma información prevista en la Directiva en virtud de un “acuerdo de cualificación vigente entre autoridades competentes”.

Behartutako operadoreak erregistratzeko obligazioa betetzeari dagokionez, esan beharra dago hura betetzeko beharrezkoa izango dela Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan alta edo aldaketa aitorpena aurkeztea, "informazioa ematera behartuta dagoen plataforma operadorearen" izaera espezifikoa adieraziz.

En cuanto al cumplimiento de la obligación de registro del operador obligado, se efectuará a través de la correspondiente declaración censal de alta o modificación en el Censo de Empresarios, Profesionales y Retenedores, mediante la declaración de la condición específica de “operador de plataforma obligado a comunicar información”.

Betebeharraren eremu objektiboari dagokionez, bitartekari diren eragiketei buruzko zenbait datu jakinarazi beharko dituzte, esate baterako hauek: operadoreen eta saltzaileen identifikazioa; haiek garatutako jarduerak;

Respecto del ámbito objetivo de la obligación, deberán comunicar diversos datos relativos a las operaciones en las cuales intermedian tales como: identificación de los propios operadores y vendedores; actividades desarrolladas

kontraprestazioa; hura kobratzeko erabilitako kontu finantzarioen identifikazioa; eta operadoreak atxikitako edo kobratutako tributuak, komisioak, tarifak eta bestelako zenbatekoak.

por estos; contraprestación e identificación de las cuentas financieras utilizadas para el cobro de la misma; tributos, comisiones, tarifas y otras cuantías retenidas o cobradas por el operador, entre otros datos.

Azkenik, eman beharreko informazioa aurkezteko epea ere zehazten da, eta, horretarako, ezartzen da "saltzailea" "informatu beharreko saltzaile" gisa identifikatzen den urtea amaitu ondorengo urte naturalean zehar aurkeztu beharko dela.

Por último, se determina el plazo de presentación de la obligación de información que será durante el año natural posterior a aquel en el que el "vendedor" haya sido identificado como "vendedor sujeto a comunicación de información".

Aipatzekoa da, halaber, ezen abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan aldatu egiten dela planifikazio fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruz informatzeko obligazioaren araubide juridikoa, eta horren arrazoia Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 (EB) Zuzentaraua dela, zeinak 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen baitu informazioa eman beharra dakarten mugaz gaindiko mekanismoen kasuan fiskalitate arloko informazio truke automatiko eta derrigorrezkoa emateari dagokionez (DAC 6 izenaz ere ezagutzen da). Izan ere, Espainiak Agintaritza Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna sinatu du, informazioaren komunikaziorako estandar komunaren elusio mekanismoei eta lurraldez kanpoko egitura opakuei buruzko informazio truke automatikoaren ingurukoa hain zuzen, bai eta ELGAren baitan informazioaren komunikaziorako estandar komunaren elusio mekanismoei eta lurraldez kanpoko egitura opakuei aurre egiteko komunikatu beharreko informazioaren Ereduzko Arauak ere, eta horren helburua da Zerga Administrazioak behar den informazioa edukitzea informazioaren komunikaziorako estandar komuna saihesten duten mekanismoei eta lurraldez kanpoko egitura opakuei

Cabe señalar, así mismo, la modificación del régimen jurídico de la obligación de información sobre mecanismos transfronterizos de planificación fiscal en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, derivada de la Directiva (UE) 2018/822 del Consejo, de 25 de mayo de 2018, que modifica la Directiva 2011/16/UE por lo que se refiere al intercambio automático y obligatorio de información en el ámbito de la fiscalidad en relación con los mecanismos transfronterizos sujetos a comunicación de información, conocida comúnmente como DAC 6, a raíz de la suscripción por parte de España del Acuerdo Multilateral entre Autoridades Competentes sobre intercambio automático de información relativa a los mecanismos de elusión del Estándar común de comunicación de información y las estructuras extraterritoriales opacas y sus Normas tipo de comunicación obligatoria de información para abordar mecanismos de elusión del Estándar común de comunicación de información y estructuras extraterritoriales opacas en el seno de la OCDE, con el objeto de posibilitar que la Administración tributaria pueda disponer de la información necesaria para proceder al intercambio con las jurisdicciones firmantes de los mecanismos que eluden el Estándar común de comunicación de información y

buruzko informazioa jurisdikzio sinatzaileekin trukatu dezan.

Era berean, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan jasotzen dira informazio betebehar horri dagokionez DAC 8 zuzentarauak DAC 6an egindako aldaketak. Alde batetik, ezartzen da sekretu profesionala gorde beharragatik informatzera behartuta ez dagoen bitartekariak ez diela zertan komunikatu haren bezeroak ez diren beste bitartekari edo zergapeko interesdunei salbuetsita dagoenik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (Sala Nagusia) 2022ko abenduaren 8an emandako epaiarekin bat etorriz (C-694/22 auzia). Gainera, aitorpen informatiboaren edukiari dagokionez, aitorpenetik ezabatzen da, aurrekoaren ildotik, sekretu profesionala gorde beharragatik informazio betebeharretik salbuetsita dauden bitartekarien nortasunari buruzko datua, eta mugaz gaindiko mekanismoaren laburpenaren barruan Zerga Administrazioari mekanismoaren arrisku fiskala ebaluatzen lagun diezaiokeen edozein informazio eman beharra sartzen da.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

1. Foru dekretu honek xede bikoitza du: batetik, arautzea “informazioa ematera behartuta dauden plataforma operadoreek» nahitaez bete behar dituzten arauak eta prozedurak, eta,

estructuras extraterritoriales opacas regulado por dicho acuerdo.

También se recogen en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, las modificaciones de la DAC 6 efectuadas por la DAC 8 en relación con esta obligación de información. Por un lado, se elimina la obligación de la persona intermediaria eximida de la obligación de información por el deber de secreto profesional de comunicar su exención al resto de personas intermediarias u obligados tributarios interesados que no sean sus clientes, de acuerdo también con la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea (Gran Sala) de 8 de diciembre de 2022 (asunto C-694/22). Además, en lo que se refiere al contenido de la declaración informativa, se excluye, en línea con lo anterior, el dato relativo a la identidad de las personas intermediarias eximidas de la obligación de información por el deber de secreto profesional y se incluye dentro del resumen del mecanismo transfronterizo, el deber de declarar cualquier información que pueda ayudar a la Administración tributaria a evaluar el riesgo fiscal del mecanismo.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

1. El presente decreto foral tiene por objeto la regulación de las normas y procedimientos de diligencia debida que deben aplicar los “operadores de plataforma obligados a comunicar

bestetik, aldatzea Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zena. Horrekin erregelamendu mailan arautu nahi dira operadore horiei ezarri zaizkien erregistro eta informazio betebehar berriak, hori guztia honako xedapenetan ezarritakoarekin bat: Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, 2011ko otsailaren 15ekoa, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena (8 bis quater artikulua eta V. eranskina), Agintari Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna, plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko ELGAren esparruan adostua, informazioa trukatzeko helburu berberarekin Espainiak sinatu dituen nazioarteko beste akordio batzuk, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeigarren xedapen gehigarria.

información", así como modificar el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, para regular a nivel reglamentario las nuevas obligaciones de registro e información que tienen que cumplir dichos operadores, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 8 bis quarter y el anexo V de la Directiva 2011/16/UE del Consejo de 15 de febrero de 2011 relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad y por la que se deroga la Directiva 77/799/CEE, el Acuerdo Multilateral entre Autoridades Competentes para el intercambio automático de información sobre la renta obtenida a través de plataformas digitales en el ámbito de la OCDE, otros acuerdos internacionales suscritos por España con el mismo objetivo de intercambio de información, y la disposición adicional vigésima de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Foru dekretu honetan eta berau garatzeko araudian erabilitako terminoek bere eranskinean jasotzen den esanahia izango dute, araudiak besterik ezartzen ez badu behintzat.

2. Los términos utilizados en este decreto foral, así como en su normativa de desarrollo, tendrán el significado contenido en su anexo, salvo que la normativa establezca otra cosa.

2. artikulua. Eremu subjektiboa.

Foru dekretu honetan arautzen diren arau eta prozedurak aplikatzera behartuta egongo dira «saltzaileei» buruzko informazio jakin batzuk «informatzera behartuta dauden plataforma operadoreak».

Era berean, «saltzaile» izaera duten pertsonek edo entitateek operadoreak nahitaezko arau eta prozedurak aplikatzetik eratortzen diren betebeharrak izango dituzte.

Artículo 2. Ámbito subjetivo.

Estarán obligados a aplicar las normas y procedimientos de diligencia debida regulados en este decreto foral los "operadores de plataforma obligados a comunicar información" sobre determinadas informaciones relativas a los "vendedores".

Asimismo, las personas o entidades que tengan la consideración de "vendedores" deberán cumplir las obligaciones derivadas de la aplicación por el operador de las normas y procedimientos de diligencia debida.

3. artikulua. Bete beharreko arauak eta prozedurak.

1. «Informatzera behartuta dauden plataforma operadoreek» «saltzaileei» buruzko informazioa lortu, egiaztatu eta zehazteko egin behar dituzten jarduketak hartuko dira nahitaez bete beharreko arau eta prozeduratzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, «informatzera behartuta dagoen plataforma operadore» batek beti aukeratu ahal izango du bete beharrekoak diren prozedurak «saltzaile aktiboei» dagokienez soilik egitea.

2. «Informatzera behartuta dagoen plataforma operadore» batek hirugarren bat erabili ahal izango du foru dekretu honetan arautzen diren nahitaezko arau eta prozedurak betetzeko. Arauak eta prozedurak hirugarrenak betetzeak ez dio inola ere kenduko operadoreari nahitaezkoak dituen beharkizunak betetzeko erantzukizuna.

Artículo 3. Normas y procedimientos de diligencia debida.

1. Tendrán la consideración de normas y procedimientos de diligencia debida aquellas actuaciones que deban realizar los “operadores de plataforma obligados a comunicar información” dirigidas a la obtención, verificación y determinación de información relativa a los “vendedores”.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, un “operador de plataforma obligado a comunicar información” podrá elegir realizar los procedimientos de diligencia debida únicamente con respecto a los “vendedores activos”.

2. Un “operador de plataforma obligado a comunicar información” podrá servirse de un tercero para cumplir las normas y procedimientos de diligencia debida reguladas en este decreto foral. En ningún caso, el cumplimiento por el tercero excluirá la responsabilidad del operador por el cumplimiento de sus obligaciones de diligencia debida.

4. artikulua. Berrikusi behar ez diren saltzaileak zehaztea.

1. «Informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak» jakin nahi badu «entitate» izaera duen «saltzaile» batek «saltzaile salbuetsitzat» jotzeko baldintzak betetzen ote dituen foru dekretu honetako eranskinaren I. sekzioko B apartatuaren 4. puntuko a) eta b) letretan deskribatutako zentzuan, publikoki eskuragarri dagoen informazioan edo “saltzaile” horrek berretsitakoan oinarritu daiteke.

2. «Informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak» jakin nahi badu «saltzaile» batek «saltzaile salbuetsitzat» jotzeko baldintzak betetzen ote dituen foru dekretu honetako eranskinaren I.

Artículo 4. Determinación de los vendedores no sujetos a revisión.

1. A fin de determinar si un “vendedor” que constituye una “entidad” cumple los requisitos para considerarse un “vendedor excluido”, tal como se describe en la sección I, apartado B, punto 4, letras a) y b), del anexo del presente decreto foral, el “operador de plataforma obligado a comunicar información” puede basarse en información públicamente disponible o en una confirmación de ese “vendedor”.

2. A fin de determinar si un “vendedor” cumple los requisitos para considerarse un “vendedor excluido”, tal como se describe en la sección I, apartado B, punto 4, letras c) y d), del anexo del

sekzioko B apartatuaren 4. puntuko c) eta d) letretan deskribatutako zentzuan, bereak diren erregistroetan oinarritu daiteke.

presente decreto foral, el "operador de plataforma obligado a comunicar información" puede basarse en sus propios registros disponibles.

5. artikulua. Informazioa lortzea.

Artículo 5. Obtención de información.

1. «Informatzera behartuta dauden plataforma operadoreak honako datu hauek lortu eta bildu beharko dituzte "saltzaile salbuetsia" ez den "saltzailearengandik":

a) Apartatu honetako lehen paragrafoan aipatzen den "saltzailea" pertsona fisikoa bada:

1.a Izen-abizenak.

2.a «Helbide nagusia».

3.a Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, Europar Batasuneko estatu kide edo jurisdikzio jaulkitzailea adierazita edo, halakorik ezean, jaioterria azalduta.

4.a Jurisdikzio batek balio erantsiaren gaineko zergaren edo antzeko zerga baten ondorioetarako emandako identifikazio zenbakia, betiere hura ezagutuz gero eta aurreko identifikazio fiskaleko zenbakia ez bada.

5.a Jaiotze data.

b) Apartatu honetako lehen paragrafoan aipatzen den «saltzailea» entitate bat bada:

1.a Sozietate izena.

2.a «Helbide nagusia».

3.a Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, Europar Batasuneko estatu kide edo jurisdikzio jaulkitzailea adierazita.

4.a Jurisdikzio batek balio erantsiaren gaineko zergaren edo antzeko zerga baten ondorioetarako emandako

1. Los "operadores de plataforma obligados a comunicar información" estarán obligados a obtener y recopilar del "vendedor" que no sea un "vendedor excluido" los siguientes datos:

a) Si el "vendedor" a que se refiere el párrafo primero de este apartado es una persona física:

1º. Nombre y apellidos.

2º. "Dirección principal".

3º. Número de Identificación Fiscal, con indicación del Estado miembro de la Unión Europea o jurisdicción de emisión, o, en su ausencia, su lugar de nacimiento.

4º. Número de identificación a efectos del impuesto sobre el valor añadido o equivalente expedido por una jurisdicción, si se conociera y fuera distinto al número de identificación fiscal anterior.

5º. Fecha de nacimiento.

b) Si el "vendedor" al que se refiere el párrafo primero de este apartado es una entidad:

1º. Razón social.

2º. "Dirección principal".

3º. Número de Identificación Fiscal, con indicación del Estado miembro de la Unión Europea o jurisdicción de emisión.

4º. Número de identificación a efectos del impuesto sobre el valor añadido o equivalente expedido por una

identifikazio zenbakia, betiere hura ezagutuz gero eta aurreko identifikazio fiskaleko zenbakia ez bada.

jurisdicción, si se conociera y fuera distinto del número de identificación fiscal anterior.

5.a Enpresaren erregistro zenbakia, hala badagokio.

5º. Número de registro de la empresa, en su caso.

6.a Europar Batasunean «bidezko jarduerak» egiteko erabiltzen diren establezimendu iraunkorren identifikazioa, establezimendu iraunkor horiek kokatuta dauden estatu kidea adierazita.

6º. Identificación de los establecimientos permanentes desde los que se ejercen “actividades pertinentes” en la Unión Europea, con indicación del Estado miembro en el que estén ubicados dichos establecimientos permanentes.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, «informatzera behartuta dagoen plataforma operadorea» ez da egongo behartuta 1.a) apartatuko 2. zenbakitik 5.era bitarte eta 1.b) apartatuko 2. zenbakitik 6.era bitarte adierazitako informazioa lortzera, baldin eta, 1. artikuluan aipatzen den Akordio Aldeaniztunaren aplikazio eremuan, informazio hori «saltzailearen» nortasunaren eta egoitzaren zuzeneko berrespen batean oinarrituta badago jurisdikzio elkartu batek edo ELGAk “saltzailearen» nortasuna eta egoitza zehazteko eskura jarritako identifikazio zerbitzu bat dela medio.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, el “operador de plataforma obligado a comunicar información” no estará obligado a obtener la información indicada en el apartado 1.a), números 2º a 5º, y el apartado 1.b), números 2º a 6º, si, en el ámbito de aplicación del Acuerdo Multilateral a que se refiere el artículo 1, se basa en una confirmación directa de la identidad y la residencia del “vendedor” a través de un servicio de identificación puesto a disposición por una “Jurisdicción socia” o la OCDE para determinar la identidad y la residencia del “vendedor”.

3. 1.a) apartatuko 3. zenbakian eta 1.b) apartatuko 3. eta 5. zenbakietan xedatutakoa gorabehera, «informatzera behartuta dagoen plataforma operadorea» ez da egongo behartuta enpresaren identifikazio fiskaleko zenbakia edo erregistro zenbakia lortzera, dagokionaren arabera, honako egoera hauetan:

3. No obstante lo dispuesto en el apartado 1.a), número 3º, y en el apartado 1.b), números 3º y 5º, el “operador de plataforma obligado a comunicar información” no estará obligado a obtener el número de identificación fiscal o el número de registro de la empresa, según corresponda, en ninguna de las situaciones siguientes:

a) “Saltzailearen” egoitzako estatu kideak edo “jurisdikzio elkartuak” “saltzaileari» identifikazio fiskaleko zenbaki bat edo enpresaren erregistro zenbaki bat ematen ez dionean.

a) Cuando el Estado miembro o “Jurisdicción socia” de residencia del “vendedor” no expida al “vendedor” un número de identificación fiscal o un número de registro de empresa.

b) “Saltzailearen” egoitzako estatu kideak edo “jurisdikzio elkartuak” “saltzaileari” eman zaion identifikazio fiskaleko zenbakia biltzea eskatzen ez duenean.

b) Cuando el Estado miembro o “Jurisdicción socia” de residencia del “vendedor” no requiera la recopilación del

número de identificación fiscal expedido al “vendedor”.

4. Gainera, “saltzaile” batek “bidezko jarduera” bat egiten duenean (ondasun higiezinen errentamendua edo haien erabileraren aldi baterako lagapena), “informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak” datu hauek jaso beharko ditu “saltzailearengandik”:

4. Además, cuando un “vendedor” realice una “actividad pertinente” que conlleve el arrendamiento o cesión temporal de uso de bienes inmuebles, el “operador de plataforma obligado a comunicar información” obtendrá del “vendedor” los siguientes datos:

a) “Ondasun higiezin komertzializatu” bakoitzaren helbidea.

a) La dirección de cada “bien inmueble comercializado”.

b) Higiezinaren finka zenbakia, zenbaki finkoa edo katastro erreferentzia edo, kokatuta dagoen estatu kidearen edo “jurisdikzio elkartuaren” legeriaren arabera, haren baliokidea dena.

b) El número de finca, número fijo o número de referencia catastral del inmueble o su equivalente con arreglo a la legislación nacional del Estado miembro o “Jurisdicción socia” en el que esté ubicado.

c) “Ondasun higiezin komertzializatua” jabe berarena dela frogatzen duten dokumentuak, datuak edo informazioa, baldin eta “informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak» 2.000 “bidezko jarduera” baino gehiago bideratu baditu “entitate” den “saltzaile” berarentzat, “Ondasun higiezin komertzializatu” baten errentamendua edo erabileraren aldi baterako lagapena dela medio.

c) Los documentos, datos o información que acrediten que el “bien inmueble comercializado” pertenece al mismo propietario o a la misma propietaria, cuando el “operador de plataforma obligado a comunicar información” haya facilitado más de 2.000 “actividades pertinentes” mediante el arrendamiento o cesión temporal de uso de un “bien inmueble comercializado” para un mismo “vendedor” que sea una “entidad”.

6. artikulua. Informazioa egiaztatzea.

1. “Informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak” erabakiko du 4. artikuluaren, 5.1 artikuluko a) letraren, artikulu horretako b) letraren (1. zenbakitik 5.era bitarte) eta 5.4 artikuluaren arabera lortutako informazioa zuzena den edo ez, eta, horretarako, bere artxiboetan duen informazio guztia erabiliko du, baita kasuan kasuko estatuak edo Europar Batasunak –edo “jurisdikzio elkartu” batek edo, hala badagokio, ELGAk– doan jarritako edozein interfaze elektronikoa ere, zeinaren bidez egiaztatuko baita balio erantsiaren gaineko zergaren

Artículo 6. Verificación de la información.

1. El “operador de plataforma obligado a comunicar información” determinará si la información obtenida de conformidad con el artículo 4 y el artículo 5.1, letras a) y b), números 1º a 5º, y el artículo 5.4, es correcta, utilizando toda la información de que disponga en sus archivos, así como cualquier interfaz electrónica puesta a disposición de forma gratuita por un Estado miembro o por la Unión Europea así como por una “Jurisdicción socia” o la OCDE, en su caso, con el fin de comprobar la validez del número de identificación fiscal, así como del número de identificación a efectos del impuesto

ondorioetarako emandako identifikazio fiskaleko zenbakiak edo jurisdikzio batek antzeko zerga baten ondorioetarako emandako identifikazio zenbakiak baliozkotasuna duten edo ez.

sobre el valor añadido o impuesto análogo expedido por una jurisdicción.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, bete beharreko prozedurak 7.2 artikuluaren arabera osatze aldera, “informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak” erabaki ahal izango du bilaketa elektronikoko erregistroetan daukan informazioa erabiltzea 4. artikuluaren, 5.1 artikuluko a) letraren, artikulu horretako b) letraren (1. zenbakitik 5.era bitarte) eta 5.4 artikuluaren arabera lortutako informazioa zuzena den edo ez zehazteko,

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, para completar los procedimientos de diligencia debida de conformidad con el artículo 7.2, el “operador de plataforma obligado a comunicar información” podrá determinar si la información obtenida conforme al artículo 4 y el artículo 5.1, letras a) y b), números 1º a 5º, y el artículo 5.4, es correcta, utilizando la información de que disponga en sus registros de búsqueda electrónica.

3. 7.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta artikulu honetako aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, “informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak», estatu kide edo “jurisdikzio elkartu” bateko agintaritza eskudunak “saltzaile” jakin bati buruzko eskaera batean emandako informazioan oinarrituta, uste badu 5. artikuluan deskribatutako informazio elementuetako edozein okerra izan daitekeela, “saltzaileari” eskatuko dio hura zuzendu dezala, eta iturri independenteetatik datozen dokumentu, datu edo informazio zuzenak aurkeztu ditzala horiek frogatzeko. Ondorio horietarako, dokumentu, datu edo informazio zuzentzat hartuko da:

3. En aplicación de lo dispuesto en el artículo 7.3, y no obstante lo dispuesto en los apartados anteriores de este artículo, en los casos en que el “operador de plataforma obligado a comunicar información” tenga motivo para creer, basándose en información facilitada por la autoridad competente de un Estado miembro o de una “Jurisdicción socia” en una petición relativa a un “vendedor” concreto, que cualquiera de los elementos de información descritos en el artículo 5 puede ser incorrecto, solicitará al “vendedor” que se rectifiquen los mismos y que se acrediten mediante documentos, datos o información que sean correctos y procedan de fuentes independientes. A estos efectos, tendrá la consideración de documento, dato o información correcta:

a) Estatu kide batek edo jurisdikzio batek emandako identifikazio dokumentu bat.

a) Un documento de identificación expedido por un Estado miembro o jurisdicción.

b) Zerga egoitzari buruzko ziurtagiria, “saltzaileari” eskaera egin aurreko sei hilabete naturaletan emana.

b) Un certificado de residencia fiscal que haya sido emitido durante los seis meses naturales anteriores a la petición efectuada al “vendedor”.

7. artikulua. Bete beharreko prozeduren epea eta baliozkotasuna.

1. “Informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak” “erreferentzia aldiaren” abenduaren 31 baino lehen eduki behar ditu osatuak bete beharrekoak diren prozedurak

A efectos de lo establecido en el apartado 2 de la disposición adicional vigésima de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, constituyen distintos conjuntos de datos las informaciones a que se refieren cada uno de los números ordinales de las respectivas letras del apartado 4, en relación con cada uno de los correspondientes “operadores de plataforma obligado a comunicar información” y “vendedores sujetos a comunicación de información” a que se refiere la información.

Aurrekoa gorabehera, 4. apartatuko b) letraren 1. zenbakiaren kasuan, datu multzotzat hartuko da. ……aren (e)ko.../2023 Foru Dekretuaren 5.1 artikuluko letrei dagozkien zenbaki ordinalak (XX/2023 Foru Dekretua, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek eman behar duten informazioaren nahitaezko truke automatikoaren esparruan bete beharreko arauak eta prozedurak, eta Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen baita. Horrekin gure ordenamendura ekartzen da Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena).».

No obstante lo anterior, en el supuesto del número 1º de la letra b) del apartado 4, tendrá la consideración de conjunto de datos cada uno de los números ordinales a que se refieren las respectivas letras del artículo 5.1 del Decreto Foral ../2023, de ……., por el que se desarrollan las normas y los procedimientos de diligencia debida en el ámbito del intercambio automático obligatorio de información comunicada por los operadores de plataforma y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad.».

Azken xedapenetako bigarrena. Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.

Foru dekretu honen bidez bi zuzentarau hauek txertatzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudian: Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, eta Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko 2023/2226 Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

Disposición final segunda. Incorporación de derecho de la Unión Europea.

Mediante este decreto foral se incorporan a la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad, así como la Directiva (UE) 2023/2226 del Consejo de 17 de octubre de 2023 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad.

Azken xedapenetako hirugarrena. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua gaitzea.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Disposición final tercera. Habilitación al diputado o a la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Se habilita al diputado o a la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación de este decreto foral.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Hala ere:

a) Bete beharrekoak diren arauak eta prozedurak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

b) Abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 72 ter artikuluan ezarritakoaren arabera jarduera jakin batzuei buruz «informatzera behartuta dauden plataforma operadoreen» lehen

Disposición final cuarta. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

No obstante:

a) Las normas y procedimientos de diligencia debida se aplicarán a partir de 1 de enero de 2023.

b) La primera declaración informativa de la obligación de información de determinadas actividades por los operadores de plataformas a que se refiere el artículo 72 ter del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales,

aitorpen informatiboa 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharko da, eta bertan aurreko urteari buruzko informazioa jaso beharko da.

aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, se deberá presentar a partir de 1 de enero de 2024 respecto de la información relativa al año inmediato anterior.

ERANSKINA

DEFINIZIOAK ETA BESTE ARAU BATZUK PLATAFORMA OPERADOREENTZAT.

Eranskin honetan jasotzen dira informatzera behartuta dauden plataforma operadoreek aintzat hartu behar dituzten definizioak eta beste arau batzuk, Zerga Administrazioak truke automatiko bidez komunikatu ahal izan dezan Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak) hogeigarren xedapen gehigarrian aipatzen den informazioa, hori guztia honako xedapenetan ezarritakoarekin bat: Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzkoa, 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena (8 bis quater artikulua eta V. eranskina), Agintari Eskudunen arteko Akordio Aldeaniztuna, plataforma digitalen bidez lortutako errentari buruzko informazioa automatikoki trukatzeko ELGAren esparruan adostua, eta Espainiak helburu berarekin sinatutako nazioarteko bestelako akordioak.

I. SEKZIOA

DEFINIZIOAK

Ondoren aipatzen diren terminoek jarraian adierazten den esanahia izango dute:

A. Informatzera behartuta dauden plataforma operadoreak.

1. "Plataforma": erabiltzaileek erabil dezaketen eta saltzaileei beste erabiltzaile batzuekin harremanetan jartzeko aukera ematen dien edozein

ANEXO

DEFINICIONES Y OTRAS NORMAS PARA OPERADORES DE PLATAFORMAS.

El presente anexo establece las definiciones y otras normas que deberán aplicar los operadores de plataforma obligados a comunicar información para que la Administración tributaria pueda comunicar, mediante intercambio automático de acuerdo con el artículo 8 bis quarter y el anexo V de la Directiva 2011/16/UE, del Consejo, de 15 de febrero de 2011, relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad y por la que se deroga la Directiva 77/799/CEE, el Acuerdo Multilateral entre Autoridades Competentes para el intercambio automático de información sobre la renta obtenida a través de plataformas digitales en el ámbito de la OCDE y otros acuerdos internacionales suscritos por España con el mismo objetivo, la información a la que hace referencia la disposición adicional vigésima de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

SECCIÓN I

DEFINICIONES

Los siguientes términos tienen el significado que se indica a continuación:

A. Operadores de plataforma obligados a comunicar información.

1. “Plataforma”: cualquier software, incluidos los sitios web o partes de ellos y las aplicaciones, entre ellas las aplicaciones móviles, que sea accesible

software, webguneak edo haien zatiak eta aplikazioak barne (aplikazio mugikorrak, besteak beste), erabiltzaile horiei zuzendutako "bidezko jarduera" bat zuzenean edo zeharka egitea ahalbidetzen duena.

para los usuarios y que permita a los vendedores ponerse en contacto con otros usuarios para llevar a cabo una “actividad pertinente”, de forma directa o indirecta, para esos usuarios.

Orobat, "bidezko jarduerarekiko" "kontraprestazioa" bildu eta ordaintzeko modalitate guztiak ere hartzen ditu barnean plataformak. Softwarea ez da sartuko "plataforma" terminoaren barruan, baldin eta "bidezko jarduera" egiteko beste ezein esku hartzerik izan gabe, eragiketa hauetako bat soilik egitea ahalbidetzen badu:

También incluye cualquier modalidad de recaudación y pago de una “contraprestación” con respecto a la “actividad pertinente”. El término “plataforma” no incluye software que, sin ninguna otra intervención para llevar a cabo la “actividad pertinente”, permita exclusivamente alguna de las siguientes operaciones:

a) "bidezko jarduerarekin" lotutako ordainketak prozesatzea;

a) procesar pagos relacionados con la “actividad pertinente”;

b) erabiltzaileek "bidezko jarduera" bat eskaini edo sustatzea;

b) que los usuarios ofrezcan o promocionen una “actividad pertinente”;

c) erabiltzaileak plataforma batera birbideratu edo transferitzea.

c) redirigir o transferir usuarios a una plataforma.

2. "Plataforma operadorea": plataforma osoa edo haren zati bat saltzaile horien eskura jartzeko saltzaileekin kontratuak egiten dituen "entitatea".

2. “Operador de plataforma”: una “entidad” que celebra contratos con vendedores para poner toda o parte de una plataforma a disposición de tales vendedores.

3. "Plataforma operadore salbuetsia": "plataforma operadore" bat, aldez aurretik eta urteko maiztasunez frogatu behar duena, Espainiako Zerga Administrazioaren oniritziarekin, plataformaren enpresa ereduan ez dagoela "informatu beharreko saltzailerik". Bestela, behartuta egongo litzateke Zerga Administrazioari informazio hori ematera, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak 72 ter artikuluan jasotakoaren arabera.

3. “Operador de plataforma excluido”: un “operador de plataforma” que haya demostrado por adelantado y con una periodicidad anual, a satisfacción de la Administración tributaria española, a la que de lo contrario tendría que haber comunicado la información con arreglo al artículo 72 ter del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, que el conjunto del modelo empresarial de la plataforma es tal que esta no tiene “vendedores sujetos a comunicación de información”.

4. «Europar Batasunetik kanpoko plataforma operadore kualifikatua»: «plataforma operadore» bat, zeinaren

4. “Operador de plataforma cualificado externo a la Unión”: un “operador de plataforma” cuyas “actividades

«bidezko jarduera» guztiak «bidezko jarduera kualifikatuak» baitira eta haren egoitza, zerga ondorioetarako, «Batasunetik kanpoko lurralde kualifikatu» batean baitago, edo, zeinak, egoitza fiskala «Europar Batasunetik kanpoko lurralde kualifikatu» batean ez edukita ere, baldintza hauetakoren bat betetzen baitu:

pertinentes" son, en su totalidad, "actividades pertinentes cualificadas" y que es residente a efectos fiscales en un "territorio cualificado no perteneciente a la Unión" o, si no tiene su residencia fiscal en un "territorio cualificado no perteneciente a la Unión", cumple alguna de las condiciones siguientes:

a) "Batasunetik kanpoko lurralde kualifikatu" bateko legeriaren arabera eratuta egotea, edo

a) está constituido con arreglo a la legislación de un "territorio cualificado no perteneciente a la Unión", o

b) haren administrazio lekua (administrazio efektiboa barne) "Batasunetik kanpoko lurralde kualifikatu" batean egotea.

b) su lugar de administración (incluida su administración efectiva) se encuentra en un "territorio cualificado no perteneciente a la Unión".

5. "Batasunetik kanpoko lurralde kualifikatua": Batasunekoa ez den lurralde bat, zeinak "agintari eskudunen arteko kualifikazio akordio indardun" bat sinatu baitu Batasunetik kanpoko lurraldeak argitaratutako zerrendan informatzera behartutako lurralde gisa ageri diren estatu kide guztietako agintaritza eskudunekin.

5. "Territorio cualificado no perteneciente a la Unión": un territorio no perteneciente a la Unión que ha suscrito un "acuerdo de cualificación vigente entre autoridades competentes" con las autoridades competentes de todos los Estados miembros que figuran como territorios sujetos a la comunicación de información en una lista publicada por el territorio no perteneciente a la Unión.

6. "Agintari eskudunen arteko kualifikazio akordio indarduna": estatu kide bateko agintari eskudunek eta Batasunetik kanpoko lurralde batek izenpetutako akordioa, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter artikuluan zehaztutakoa bezalako informazio truke automatikoa exijitzen duena. Baliokidetasun hori exekuzio egintza baten bidez berretsi beharko da, Fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzkoa den eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duen Kontseiluaren otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis quarter artikuluko 7. apartatuan jasotakoarekin bat etorriz.

6. "Acuerdo de cualificación vigente entre autoridades competentes": un acuerdo entre las autoridades competentes de un Estado miembro y de un territorio no perteneciente a la Unión que exija el intercambio automático de información equivalente a la especificada en el artículo 72 ter del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre,, equivalencia que deberá confirmarse mediante un acto de ejecución de conformidad con el artículo 8 bis quarter, apartado 7, de la Directiva 2011/16/UE, del Consejo, de 15 de febrero de 2011, relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la

fiscalidad y por la que se deroga la Directiva 77/799/CEE.

7. "Bidezko jarduera": "kontraprestazio" baten truke egindako jarduera, eragiketa hauetako bat egitea dakarrena:

7. “Actividad pertinente”: una actividad realizada por una “contraprestación” y que constituye alguna de las siguientes operaciones:

a) ondasun higiezinak errentan ematea edo haien erabilera aldi baterako lagatzea, barruan sartuta bizitegi erabilerako eta merkataritza erabilerako ondasun higiezinak eta beste edozein motatako ondasun higiezinak, baita aparkalekuak ere;

a) el arrendamiento o cesión temporal de uso de bienes inmuebles, entre los que se incluyen bienes inmuebles de uso residencial y de uso comercial y cualquier otro tipo de bien inmueble, así como plazas de aparcamiento;

b) zerbitzu pertsonalak;

b) los servicios personales;

c) “ondasunen" salmenta;

c) la venta de “bienes”;

d) edozein garraiobideren errentamendua.

d) el arrendamiento de cualquier medio de transporte.

"Bidezko jarduera" terminoak ez ditu barnean hartzen "plataforma operadorearen" edo "plataforma operadoreari" lotutako "entitate" baten enplegatu gisa jarduten duen "saltzaile" batek egindako jarduerak.

El término “actividad pertinente” no incluye las actividades llevadas a cabo por un “vendedor” que actúe como empleado del “operador de plataforma” o de una “entidad” vinculada al “operador de plataforma”.

8. “Bidezko jarduera kualifikatua”: “agintari eskudunen arteko kualifikazio akordio indardun” baten ondorioz informazio truke automatiko baten xede den “bidezko jarduera” guztiak dira.

8. “Actividad pertinente cualificada”: toda “actividad pertinente” que sea objeto de un intercambio automático de información en virtud de un “acuerdo de cualificación vigente entre autoridades competentes”.

9. “Kontraprestazioa”: “informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak” atxiki edo kobratutako tasa, komisio edo zergengatik garbian izan den konpentsazio mota oro, “saltzaile” bati “bidezko jarduerarekin” lotuta ordaindu edo abonatzen zaiona eta “plataforma operadoreak” arrazoizko eran ezagutzen duena edo ezagutu dezakeena.

9. “Contraprestación”: todo tipo de compensación, neta de tasas, comisiones o impuestos retenidos o cobrados por el “operador de plataforma obligado a comunicar información”, que se pague o abone a un “vendedor” en relación con la “actividad pertinente”, cuyo importe conozca o pueda razonablemente conocer el “operador de plataforma”.

10. “Zerbitzu pertsonala”: modu independentean edo “entitate” baten izenean diharduen partikular batek edo batzuek orduka edo zerbitzuka lan eginez gauzatzen den zerbitzua, erabiltzaile

10. “Servicio personal”: un servicio que conlleva la realización de trabajo por horas o por servicio por parte de uno o varios particulares, que actúan de forma independiente o en nombre de una

batek eskatuta egiten dena, linean zein fisikoki lineaz kanpo, plataforma baten bidez eman ondoren.

"entidad", y que se lleva a cabo a petición de un usuario, ya sea en línea o físicamente fuera de línea, tras haber sido facilitado a través de una plataforma.

B. Informatu beharreko saltzaileak.

B. Vendedores sujetos a comunicación de información.

1. "Saltzailea": plataforma baten erabiltzaile bat, izan pertsona bat izan "entitate" bat, "erreferentzia aldian" zehar edozein unetan dagoena plataforman erregistratuta eta "bidezko jarduera" egiten duena.

1. "Vendedor": un usuario de una plataforma, ya sea una persona o una "entidad", que está registrado en cualquier momento durante el "período de referencia" en la plataforma y que realiza la "actividad pertinente".

2. "Saltzaile aktiboa": "erreferentzia aldian" zehar "bidezko jarduera" bat egiten duen "saltzailea", edo "erreferentzia aldian" zehar "bidezko jarduera" bat egiteagatik "kontraprestazio" baten ordainketa edo abonua jasotzen duena.

2. "Vendedor activo": todo "vendedor" que realiza una "actividad pertinente" durante el "período de referencia" o que recibe el pago o abono de una "contraprestación" en relación con una "actividad pertinente" durante el "período de referencia".

3. "Informatu beharreko saltzailea": "saltzaile salbuetsia" ez den "saltzaile aktiboa", Europar Batasuneko estatu kide batean edo "jurisdikzio elkartu" batean egoiliartuta dagoena, edo estatu kide batean edo "jurisdikzio elkartu" batean kokatutako ondasun higiezinak errentan eman edo haien erabilera aldi baterako lagatzen duena.

3. "Vendedor sujeto a comunicación de información": todo "vendedor activo", distinto de un "vendedor excluido", que sea residente en un Estado miembro de la Unión Europea o en una "Jurisdicción socia", o que dé en arrendamiento o cesión temporal de uso bienes inmuebles ubicados en un Estado miembro o en una "Jurisdicción socia".

4. "Saltzaile salbuetsia": "saltzaile" oro, baldintza hauek betetzen dituena:

4. "Vendedor excluido": todo "vendedor":

a) "entitate estatal" bat izatea;

a) que sea una "entidad estatal";

b) "entitate" bat izatea eta haren kapital soziala erregulartasunez negoziatzea balore merkatu aitortu batean, edo "entitate" hori lotuta egotea kapitala balore merkatu aitortu batean erregulartasunez negoziatua duen "entitate" batekin;

b) que sea una "entidad" cuyo capital social se negocia regularmente en un mercado de valores reconocido o una "entidad" vinculada a una "entidad" cuyo capital se negocia regularmente en un mercado de valores reconocido;

c) "plataforma operadoreak" 2.000 "bidezko jarduera" baino gehiago ahalbidetzea erreferentzia aldian "entitateari", "ondasun higiezin komertzializatu" baten errentamendua

c) que sea una "entidad" a la que el "operador de plataforma" haya facilitado, en el período de referencia, más de 2.000 "actividades pertinentes" a través de arrendamientos o cesiones temporales

edo erabileraren aldi baterako lagapena dela medio, edo

d) “ondasunen” salmentaren bitartez “plataforma operadoreak” hogeita hamar “bidezko jarduera” baino gutxiago ahalbidetzea entitateari”, eta haiengatik ordaindu edo abonatutako “kontraprestazioaren” zenbateko osoa ez izatea "erreferentzia aldian” 2.000 eurotik gorakoa.

C. Beste definizio batzuk

1. “Entitatea”: pertsona juridiko bat edo tresna juridiko bat, hala nola kapital sozietate bat, pertsonen sozietate bat, fideikomiso bat edo fundazio bat.

“Entitate” bat beste “entitate” bati lotutako “entitate” bat da, baldin eta bietako batek bestea kontrolatzen badu edo bi entitateak kontrol komun baten mende badaude. Ondorio horietarako, “kontrolaren” barruan sartzen da “entitate” baten kapitalean ehuneko 50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza izatea eta “entitate” horren boto eskubideen ehuneko 50 baino gehiago edukitzea. Zeharkako partaidetzetan, beste “entitate” baten kapitalean ehuneko 50etik gorako partaidetza izateari buruzko beharkizuna betetzen dela zehazteko, ondoz ondoko mailetako partaidetza portzentajeak biderkatuko dira. Boto eskubideen ehuneko 50 baino gehiago duen pertsona batek eskubide horien ehuneko 100 duela joko da.

2. “Entitate estatala”: Europar Batasuneko estatu kide bateko edo beste lurralde bateko administrazioa, estatu kide bateko edo beste lurralde bateko azpibanaketa politiko oro (estatu federatuak, probintziak, konderriak edo udalerriak barne), edo estatu kide bateko, beste lurralde bateko edo aipatutako enteetako edozein organismo edo agentzia instituzional (haietako bakoitzak “entitate estatal” bat osatuko du).

de uso con respecto a un “bien inmueble comercializado”, o

d) al que el “operador de plataforma” haya facilitado, mediante la venta de “bienes”, menos de treinta “actividades pertinentes”, por las que el importe total de la “contraprestación” pagada o abonada no haya superado los 2.000 euros durante el “período de referencia”.

C. Otras definiciones

1. “Entidad”: una persona jurídica o instrumento jurídico, entre otros, una sociedad de capital, una sociedad de personas, un fideicomiso o una fundación.

Una “entidad” es una “entidad” vinculada de otra “entidad” si una de las dos “entidades” controla a la otra o si ambas entidades están sujetas a un control común. A estos efectos, “control” incluye una participación directa o indirecta de más del 50 por ciento en el capital de una “entidad” y la posesión de más del 50 por ciento de los derechos de voto de dicha “entidad”. En las participaciones indirectas, el cumplimiento del requisito relativo a una participación de más del 50 por ciento en el capital de otra “entidad” se determinará multiplicando los porcentajes de participación en los niveles sucesivos. Se considerará que una persona que posea más del 50 por ciento de los derechos de voto posee el 100 por ciento de dichos derechos.

2. “Entidad estatal”: la administración de un Estado miembro de la Unión Europea, u otro territorio, toda subdivisión política de un Estado miembro u otro territorio (incluidos los Estados federados, provincias, condados o municipios), o cualquier organismo o agencia institucional que pertenezca en su totalidad a un Estado miembro u otro territorio o a cualquiera de los entes

mencionados (constituyendo cada uno de ellos una “entidad estatal”).

3. “IFZ”: zergadunaren identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko estatu kide batek edo beste jurisdikzio batek emana, edo, identifikazio fiskaleko zenbakirik ez dagoenean, haren baliokide funtzionala.

3. “NIF”: el número de identificación fiscal de un contribuyente expedido por un Estado miembro de la Unión Europea u otra jurisdicción, o su equivalente funcional en ausencia de un número de identificación fiscal.

4. “BEZaren ondorioetarako identifikazio zenbakia”: zergaren mende ez dagoen eta balio erantsiaren gaineko zergaren edo ondasun eta zerbitzuen gaineko zergaren ondorioetarako erregistratuta dagoen subjektu pasibo bat edo entitate juridiko bat identifikatzen duen zenbaki bakarra, jurisdikzio batek emana.

4. “Número de identificación a efectos del IVA”: el número único que identifica a un sujeto pasivo o una entidad jurídica no sujeta a impuesto que estén registrados a efectos del impuesto sobre el valor añadido o del Impuesto sobre Bienes y Servicios expedido por una jurisdicción.

5. “Helbide nagusia”: pertsona fisikoa den “saltzaile” baten egoitza nagusiaren helbidea, bai eta “entitate” den “saltzaile” baten egoitza sozialaren helbidea ere.

5. “Dirección principal”: la dirección de la residencia principal de un “vendedor” que sea una persona física, así como la dirección del domicilio social de un “vendedor” que sea una “entidad”.

6. “Erreferentzia aldia”: komunikatzen den informazioa zein urte naturalari buruzkoa den.

6. “Período de referencia”: el año natural respecto del cual se lleva a cabo la comunicación de información.

7. “Ondasun higiezin komertzializatua”: posta helbide berean kokatuta dauden unitate higiezin guztiak, jabe bera dutenak eta “saltzaile” batek plataforma batean alokatzeko jartzen dituenak.

7. “Bien inmueble comercializado”: todas las unidades inmuebles ubicadas en una misma dirección postal que pertenezcan a un mismo propietario y que un mismo “vendedor” ponga en alquiler en una plataforma.

8. “Finantza kontuaren identifikatzailea”: "kontraprestazioa” ordaindu edo abonatzeko erabiltzen den banku kontuaren edo antzeko beste ordainketa zerbitzu batzuen erreferentzia edo identifikazio zenbaki bakarra, “plataforma operadorearen” eskura jartzen dena.

8. “Identificador de cuenta financiera”: la referencia o el número de identificación único a disposición del “operador de plataforma” de la cuenta bancaria o de otros servicios de pago similares a la que se paga o abona la “contraprestación”.

9. "Ondasunak": ondasun material oro.

9. “Bienes”: todo bien material.

10. "Jurisdikzio elkartua": abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter artikuluan

10. “Jurisdicción socia”: España y cualquier otra jurisdicción con la que España tenga en vigor un acuerdo u otro instrumento jurídico en virtud del que intercambien de forma automática la

zehaztutako informazioa automatikoki elkarri trukatzeko, Espainiarekin akordio bat edo beste edozein tresna juridiko indarrean duen beste edozein jurisdikzio, zerrenda publiko batean hala identifikatuta ageri dena.

información especificada en el artículo 72 ter del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, y que esté identificada como tal en un listado público.

II. SEKZIOA

APLIKAZIO EFEKTIBOA

Estatu kide edo "jurisdikzio elkartu" bakarra aukeratzeko administrazio prozedura, informazioaren komunikazioaren ondorioetarako.

Baldin eta abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduaren 72 ter artikuluaren 3. apartatuan zentzuan "informatzera behartuta dagoen plataforma operadore" batek estatu kide batean baino gehiagotan edo "jurisdikzio elkartu" batean baino gehiagotan zerrendatutako konexio irizpideren bat betetzen badu, estatu kide edo "jurisdikzio elkartu" horietako bat aukeratuko du artikulu horretan jasotako informazio betebeharra betetzeko. "Informatzera behartuta dagoen plataforma operadoreak" estatu kide edo "jurisdikzio elkartuetako" agintari eskudun guztiei jakinaraziko die egindako aukera.

SECCIÓN II

APLICACIÓN EFECTIVA

Procedimiento administrativo para la elección de un único Estado miembro o "Jurisdicción socia" a efectos de la comunicación de información

Si un "operador de plataforma obligado a comunicar información" en el sentido del apartado 3 del artículo 72 ter del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, cumple alguno de los criterios de conexión allí enumerados en más de un Estado miembro o "Jurisdicción socia", elegirá uno de esos Estados miembros o "jurisdicciones socias" para cumplir la obligación de información prevista en dicho artículo. El "operador de plataforma obligado a comunicar información" lo notificará a todas las autoridades competentes de esos Estados miembros o "jurisdicciones socias" de su elección.

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Diputatuaren oniritzia. FD DAC 7ren erregelamendua garapena

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

INFORMAZIOA JENDAURREAN JARTZEKO TRAMITEA

Foru Dekretu proiektua, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek eman behar duten informazioaren nahitaezko truke automatikoaren esparruan bete beharreko arauak eta prozedurak, eta Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen baita. Horrekin gure ordenamendura ekartzen da Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

Eginbidea:

Honen bidez espedientean jasota uzten da goiburuan adierazitako xedapena argitara eman dela Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean eta Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan, eta horrekin bete egin dela informazioa jendaurrean jartzeko tramitea, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2023ko abenduaren 7tik 21a bitartean egon da xedapen hori ikusgai jendaurrean.

Halaxe jasotzen da bidezko ondorioak izan ditzan.

Donostia, 2023ko abenduaren 26a.

TRÁMITE DE INFORMACIÓN PÚBLICA

Proyecto Decreto Foral por el que se desarrollan las normas y los procedimientos de diligencia debida en el ámbito del intercambio automático obligatorio de información comunicada por los operadores de plataforma y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad.

Diligencia:

Se hace constar en el expediente que en cumplimiento de lo dispuesto en la letra d) del apartado 1 del artículo 70 de la NORMA FORAL 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se ha efectuado el trámite de información pública de la disposición que se indica en el encabezamiento mediante su publicación en la página Web del Departamento de Hacienda y Finanzas y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El plazo en el que ha sido objeto de información pública comprende entre el 7 y el 21 de diciembre de 2023, ambos inclusive.

Lo que se hace constar a los efectos oportunos.

San Sebastián, a 26 de diciembre de 2023.

Fdo.: Luis Ignacio Bernarás Iturrioz
Araugintzako atal burua.

Gipuzkoa Ogasuna Araudia Informazio publikoa

Zerga araudia (informazio publikoa)

Atal honetatik Gipuzkoako zergadun eta profesionalei zergak erregulatzen dituzten arau-xedapenetarako sarrera eskaini nahi zaie. Horrela, Gipuzkoako zerga-araudi ikusi, inprimatu eta zuzenean zure ordenagailura deskarga dezakezu.

Foru Araua aurreproiektua, zenbait zerga aldaketa onesten dituena.

Jendaurreko informazioaren hasiera data: 2023/11/20

Jendaurreko informazioaren amaiera data: 2023/12/19

Posta elektronikoa: jendaurreko.araugintza@gipuzkoa.eus

Foru Dekretua, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek eman behar duten informazioa

Jendaurreko informazioaren hasiera data: 2023/12/07

Jendaurreko informazioaren amaiera data: 2023/12/21

Posta elektronikoa: jendaurreko.araugintza@gipuzkoa.eus

Gipuzkoa Hacienda Normativa Información pública

Normativa tributaria (información pública)

Desde este apartado se pretende ofrecer a los contribuyentes y profesionales guipuzcoanos el acceso a las disposiciones normativas que regulan los impuestos. La normativa tributaria puede, de esta forma, visualizarse, imprimirse y descargarse directamente a su ordenador.

Anteproyecto de Norma Foral por la que se aprueban modificaciones tributarias.

Fecha inicio información pública: 20/11/2023

Fecha finalización información pública: 19/12/2023

Correo electrónico: jendaurreko.araugintza@gipuzkoa.eus

Decreto Foral por el que se desarrollan las normas y los procedimientos de diligencia debida en el ámbito del intercambio automático obligatorio de información comunicada por los operadores de plataforma

Fecha inicio del plazo de información pública: 07/12/2023

Fecha finalización plazo de información pública: 21/12/2023

Correo electrónico; jendaurreko,araugintza@gipuzkoa.eus

Argitalpena jasota uzteko zerbitzua

Servicio de constancia de publicación

Izenpe, ziurtapen eta zerbitzu enpresa - empresa de certificación y servicios, erakundeak ziurtatzen du / certifica que:

Entitate Entidad	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA - DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA
Dokumentu argiratuta Documento publicado	Ver el decreto foral
Helbidea Dirección	www.gipuzkoa.eus/datuak/tablonanuncios/FD_DAC_7ren_erregelamendu_bidezko_garapena-es-C-4086-20231205130411.pdf
Data Fecha	**2023** (e)ko **Abendua** (a)ren **05** (e)(a)n **13:04 (GMT +1)** (r)etatik Desde las **13:04 (GMT +1)** del día **05** de **Diciembre** de **2023**
Egiazpena Comprobación	**2023** (e)ko **Abendua** ren **05** (r)(e)(a)n, **13:04 (GMT +1)** (r)(e)tatik, **2023** (e)ko **Abendua** ren **21** (r)(e)ko **23:59 (GMT +1)** (r)(a)k arte Desde las **13:04 (GMT +1)** del día **05** de **Diciembre** de **2023** , hasta las **23:59 (GMT +1)** del día **21** de **Diciembre** de **2023**

Oharrak
Observaciones

- 06/12/2023 02:01:47 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 07/12/2023 02:01:25 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 08/12/2023 02:02:23 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 09/12/2023 02:01:21 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 10/12/2023 02:01:02 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 11/12/2023 02:01:24 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 12/12/2023 02:01:35 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 13/12/2023 02:02:05 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.

Argitalpena jasota uzteko zerbitzua

Servicio de constancia de publicación

- 14/12/2023 02:01:37 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 15/12/2023 02:02:42 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 16/12/2023 02:02:24 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 17/12/2023 02:02:18 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 18/12/2023 02:02:33 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 19/12/2023 02:01:55 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 20/12/2023 02:01:50 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.
- 21/12/2023 02:02:23 (GMT +1) - Dokumentuak ez dauka aldaketarik aurreko dokumentuarekiko.
  El documento no presenta modificaciones respecto al original.

Firmante: ST=ARABA, L=VITORIA-GASTEIZ, EA=info@izenpe.com, CN=PLATAFORMA ZAIN, OU=SERVICIO CONSTANCIA PUBLICACION, O=IZENPE S.A., C=ES
Emisor: CN=EAEko Herri Administraziocn CA - CA AAPP Vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 0x287B9F6821D14C39615C1DF92ACE10CB
Fecha (GMT): 2023.12.21 01:02:23 Z

MEMORIA

Foru Dekretu proiektua, zeinaren bidez garatzen baitira plataforma digitaletako operadoreek komunikatutako informazioaren nahitaezko truke automatikoan eginbide egokirako aintzat hartu beharreko arauak eta prozedurak, eta zeinaren bidez aldatzen baita Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsia. Horrekin gure ordenamendura ekartzen da Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaraua, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena.

SARRERA

I

Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauak, zeinaren bidez aldatzen baita fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua (aurrerantzean, DAC 7), helburu nagusi hauek ditu: Europar Batasunean informazioa trukatzeko eta administrazio lankidetzarako dagoen esparrua hobetzea eta administrazio lankidetza hori eremu berrietara zabaltzea, ekonomiaren digitalizazioak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko eta zerga administrazioei zergak hobeto eta modu eraginkorragoan biltzen laguntzeko. Alde horretatik, bertan informazio obligazio berri bat ezartzen da plataforma digitaletako operadoreei dagokienez.

Era berean, informazioa trukatzeko mekanismoak indartzen ari diren nazioarteko testuinguru horretan, kontuan izan behar da Espainiak izenpetu egin duela Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen esparruan (ELGA, aurrerantzean) Agintari eskudunen artean adostutako Akordio Aldeaniztuna, plataforma

MEMORIA

Proyecto de Decreto Foral por el que se desarrollan las normas y los procedimientos de diligencia debida en el ámbito del intercambio automático obligatorio de información comunicada por los operadores de plataformas y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad.

INTRODUCCIÓN

I

La Directiva (UE) 2021/514 del Consejo de 22 de marzo de 2021 por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad, en adelante DAC 7, tiene como principales objetivos mejorar el marco existente para el intercambio de información y la cooperación administrativa en la Unión Europea, así como ampliar la cooperación administrativa a ámbitos nuevos, con el fin de abordar los desafíos que plantea la digitalización de la economía y ayudar a las administraciones tributarias a recaudar los impuestos de una forma mejor y más eficiente. En este sentido, se establece una nueva obligación de información respecto de los operadores de las plataformas digitales.

Asimismo, en un contexto internacional de fortalecimiento de los mecanismos de intercambio de información, hay que tener en cuenta la suscripción por parte de España del Acuerdo Multilateral entre Autoridades competentes sobre el intercambio automático de información relativa a ingresos obtenidos a través de plataformas

digitalen bidez lortutako diru-sarreren inguruko informazio truke automatikoari buruzkoa. Orobat, helburu bera duten nazioarteko beste akordio batzuk ere izenpetu ditu estatuak. Alde horretatik, Akordio Aldeaniztun horren babespean jurisdikzio sinatzaileei informazio trukea errazte aldera, onespena eman zaie ELGAren baitan ekonomia kolaboratiboaren eta noizbehinkako eta enkargupeko lan ekonomiaren esparruan saltzaile direnei buruz plataformetako operadoreek informazioa emateko ereduzko arau batzuei (ereduzko arauak, aurrerantzean), zeinek antza handia baitute DAC 7 zuzentarauaren edukiarekin, eta bereziki, haren eranskinean eginbide egokirako jasotzen diren arau eta prozedurekin.

digitales en el ámbito de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico, en adelante OCDE, así como otros acuerdos internacionales suscritos con el mismo objetivo. En este sentido, a efectos de facilitar a las jurisdicciones firmantes el intercambio de información al socaire del citado Acuerdo multilateral, se ha aprobado en el seno de la OCDE unas Normas tipo de comunicación de información por operadores de plataformas respecto de los vendedores en el ámbito de la economía colaborativa y la economía de trabajo esporádico y por encargo, en adelante Normas tipo, sustancialmente similar al contenido de la DAC 7, en particular, a las normas y procedimientos de diligencia debida de su anexo.

Aipatutako operadoreek beharkizun hori bete ahal izan dezaten, bertan eginbide egokirako zenbait arau eta prozedura ezartzen dira plataforma digitaletako operadoreek "saltzaileei" dagokienez aplika ditzaten, eta, horren helburua da saltzaileek datu jakin batzuk ematea operadoreei, azken horiek, beren aldetik, Zerga Administrazioarekiko duten informazio betebeharra bete dezaten.

A efectos de que los citados operadores puedan cumplir con la mencionada obligación se establecen ciertas normas y procedimientos de diligencia debida que los operadores de plataformas digitales deberán aplicar respecto de los considerados "vendedores", a fin de que estos últimos faciliten determinados datos a los operadores para que estos, a su vez, puedan cumplir con la obligación de información respecto de la Administración tributaria.

Foru dekretu honek helburu bikoitza du: batetik, gorago adierazi diren eginbide egokirako arau eta prozedurak ezartzea, eta, bestetik, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan sartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean gai horien inguruan jasotzen den araudiarekin batera aplikatzekoak diren erregistro eta informazio betebehar berriak. Horrekin osatuta geratzen dira bai 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa eta bai Akordio aldeaniztunaren edo nazioarteko beste akordio batzuen ezarpena.

Este decreto foral tiene por objeto establecer las normas y procedimientos de diligencia debida referenciados, así como regular las nuevas obligaciones de registro e información que se incluyen en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, que, junto a la normativa legal sobre dichas materias contenida en la Norma Foral 2/2005, 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, completan la transposición de la citada Directiva (UE) 2021/514, así como la implantación del Acuerdo multilateral u otros acuerdos internacionales citados.

Alde horretatik, aipatutako 2/2005 Foru Arauaren hogeigarren xedapen gehigarriak, abenduaren 21eko 2/2023 Foru Arauak erantsi zuenak –haren bidez martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aldatzen da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren

En este sentido, la disposición adicional vigésima de la mencionada Norma Foral 2/2005, adicionada por la Norma Foral 2/2023, de 21 de diciembre (por la que se modifica la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en transposición de la Directiva (UE) 2021/514 del Consejo, de 22 de marzo de 2021,

transposizioa egiteko (zuzentarau horrek 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen du, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzkoa), bai eta beste zerga arau batzuk ere–, arautzen ditu elkar laguntzaren eremuan plataforma operadoreek aitorpen informatiboari dagokionez dituzten informazio obligazioak eta eginbide egokirako beharkizunak, eta ezartzen du erregelamenduz garatuko direla xedapen gehigarri horren arabera eginbide egokirako betetzekoak diren arau eta prozedurak, erregistro betebeharrak eta informazioa ematekoak. Halaber, ezartzen du erregelamendu bidez zehaztuko dela xedapen gehigarri horretan eta erregelamenduzko garapenean erabilitako terminoen esanahia.

Hala ere, DAC 7 delakoari dagokionez, kontuan izan behar da Kontseiluaren 2023ko urriaren 17ko 2023/2226 (EB) Zuzentarauak, fiskalitatearen arloko lankidetza administratiboari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duenak (aurrerantzean, DAC 8), DAC 7ko manu jakin batzuen idazketa aldatu zuela Gipuzkoako zerga ordenamenduan haien transposizioa egin baino lehen. Ondorioz, foru dekretu honek, DAC 7aren transposizioari dagokionez, DAC 7ko zenbait xedapen ukitzen eta berridazten dituzten DAC 8ko manuak ere ekartzen ditu. Alde horretatik, "saltzailea" nor den eta egoitza non duen zuzenean baieztatzen bada estatu kideek edo Europar Batasunak eskura jarritako identifikazio zerbitzu bat erabilita, operadoreari jarraituko zaio exijitzen eginbide egokirako prozeduren arabera eskura ditzala saltzailearen datuak. Kasu horietan, nahiz eta "informazioa ematera behartuta dagoen plataforma operadoreak" datuak bildu "saltzailearengandik", ez dizkio Zerga Administrazioari eman behar.

Azkenik, eta aurrekoa alde batera utzita, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan xedapen gehigarri bat sartzen da datu pertsonalen tratamendua hizpide hartuta.

por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad, y otras normas tributarias), regula las obligaciones de información y de diligencia debida relativas a la declaración informativa de los operadores de plataforma obligados en el ámbito de la asistencia mutua, y estable que reglamentariamente se desarrollarán las normas y procedimientos de diligencia debida, así como las obligaciones de registro y suministro de información de dicha disposición adicional. Así mismo, establece que reglamentariamente se determinará el significado de los términos utilizados en la citada disposición adicional y en el desarrollo reglamentario.

No obstante, por lo que se refiere a la denominada DAC 7, hay que tener en cuenta que la Directiva (UE) 2023/2226 del Consejo, de 17 de octubre de 2023, por la que se modifica la Directiva 2011/16/UE relativa a la cooperación administrativa en el ámbito de la fiscalidad, en adelante DAC 8, modificó la redacción de determinados preceptos de la DAC 7 antes de que fueran transpuestos al ordenamiento tributario guipuzcoano. En consecuencia, este decreto foral, en cuanto a transposición de la DAC 7, implementa también los preceptos de la DAC 8 que afectan y dan nueva redacción a determinadas disposiciones de la DAC 7. En este sentido, en el caso de confirmación directa de la identidad y la residencia del "vendedor" a través de un servicio de identificación puesto a disposición por los Estados miembros o la Unión europea, se seguirá exigiendo al operador la obtención de dichos datos del vendedor a través de los procedimientos de diligencia debida. En estos supuestos, a pesar de que los datos son recopilados del "vendedor" por el "operador de plataforma obligado a comunicar información" no tienen que ser comunicados a la Administración tributaria.

Finalmente, al margen de lo anterior, se introduce en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre, una disposición adicional relativa al tratamiento de datos personales.

II

Eginbide egokirako arau eta prozedurei dagokienez, eremu subjektiboaren aldetik, horrelako prozedurak aplikatu beharko dituzte "saltzaileen" informazio jakin batzuei buruz "informatzera behartuta dauden plataforma operadoreek"; gainera, eginbide egokirako arau horien indarrez, "saltzaileek" datu horien berri eman beharko diete esandako operadoreei.

Eremu objektiboari dagokionez, eginbide egokirako arauak eta prozedurak zertan dautzan definitzen da.

Ildo horretan, aipatutako operadoreek eman behar dituzten datuak lortzeari begira, operadore horiek ikuspegi bikoitzetik ezarri beharko dituzte eginbide egokirako prozedurak. Alde batetik, beren plataformak erabiltzen dituzten saltzaileen identifikazio datuak bildu beharko dituzte. Bestetik, datu horiek egiaztatu beharko dira, eta garrantzi berezia izango du argi uzteak non duen saltzaileak bere egoitza; izan ere, identifikazio horrek esango digu Europar Batasuneko zein estatu kide edo zein jurisdikziotara bidaliko den informazioa.

Aurrez begiratu beharreko elementu bat da zehaztea saltzaileak "saltzaile salbuetsiak" diren edo ez, eta horretarako bi tresna baliatzen dira: ez egiaztatzeko arrazoia salbuesten den entitate publiko edo kotizatuaren konfigurazioa bera bada, egiaztapena egin daiteke eskuragarri dagoen informazio publikoa erabilita edo "entitateak" berak baieztatutakoaz baliatuta. Ez egiaztatzeko arrazoia saltzaileak garatutako jardueraren konfigurazioa bada, operadoreak eskura dituen erregistroetan oinarrituta egin daiteke azterketa.

Informazioa zuzena dela egiaztatzeko, operadorearen fitxategietan jasota dagoena erabiliko da oro har. Nolanahi ere, identifikazio fiskaleko zenbakien kasuan, egiaztapena doako edozein interfaze elektroniko erabiliz egin ahal

II

Respecto a las normas y procedimientos de diligencia debida, en cuanto al ámbito subjetivo, deberán aplicar tales procedimientos los "operadores de plataforma obligados a comunicar información" en relación a determinadas informaciones de los "vendedores" que, por su parte, estarán sujetos a la comunicación de dichos datos a los citados operadores en virtud de estas normas de diligencia debida.

